



A T S O T I Z A C.
edo Refrañiac.

A

1. Adauñia eta auziquia behincoas vKen-tut.
2. Adifkidea zaharrie, contua ber- riric.
3. Adifkidea gausa zipian behar da porogatu, handian emplegaru.
4. Adifkide eguic es behar dūa- nean, bana behar dūaneco.
5. Adifkideas eguic vrheas besala, ikeseu gabe har estesala.
6. Adifkide gabe bici den aberaza Picarñetan lo guiten daza.

Picarñac erraiten diote Bortuoa

A

bide berri eta campixati, sem baita Oisagabiren eta Larraneren artean, Nafarroa garaico eta Sa- beroaco mugan.

7. Ago laincoarequi, lainco duvec hirequi.
8. Aguian serrana ezadin engana.
9. Ahalgue-gabeac bitu ep'er erreac; ser ahalgorrac? ogui-mocor- rac.

hanc dira abrafaten hizac, esen handiqui balacooy obi saite la- ket ahalgue gabrac eta laufenga- riac.

10. Aharra siten alxonac, aguet si- ten gasna ohonac.
11. Aharrañi viñua, goñe edolo- mesua.
12. Ahateari iguerican eracastea.
13. Ahoa debilano fabela boz.
14. Ahuns duguneco subi.
15. Aita bilsacari seme botelari.
16. Alaba escont esac nañean,



INTERPRETATION
DES
PROVERBES
BASQUES.

Ce qui se trouuera en cette interpretation, escrit en lettres Italique, sont des adou- stemens faits au texte Basque, pour une plus ample explication d'iceluy.

1. **A** 'Ay añe añañe & merde tout à la fois.
2. **A** L'Amv vieux, & le coupac secour, sont les meilleurs de tout.
3. Il faut éprouver l'amy aux petites occasions, & l'employer aux grandes.
4. Fais des amis, non pas lors que tu en as besoin.



2012 OIHENART 2013
aforismoen lehiaketak

Aforismoak zer diren



Definizio orokorrik ez badago ere, **modu laburraz azaldutako pentsaerak** lirateke aforismoak: paragrafo bat edo esaera bat, hitz bat agian...

Aforismoa da ideiak agertarazteko aski den testu osoa baina motza: ez zaio ezer faltako ulertua izateko, ez da beste testu baten puska izango, baina bere moduko beste testuekin batera izenburu bakar baten pean bilduta egoteak testuen esanahia osatuko du.

Literatura lan motz-laburrean, adibide ezberdinak, bai ahozkoak baita idatzizkoak, izan dira historian zehar: kontakizun laburrak, herri-ipuin motzak, pasadizoak, errefrauk, esaera zaharrak edo pentsamendu gogoetatsu labur-laburrak... Askotan, **esperimentu**

edo jolas modura agertu ohi dira.

Azken urteotan hazkundera nabarmena izan dute mota horretako lanek: luzera motzekoa, hitz gutxiei ahalik eta etekin handiena



ateratzeko asmoz idatziak. Hitzek ekonomia dela medio, irakasgai didaktikoren bat agertarazteko izkiriaturik

zenbaitetan.

“Hitz

zuhurrak”

euskara

zaharrea,

adierazpenaren

zorrotasuna eta

indarra lehenetsi

dutenak. Hitz

gutxitan, **filosofiak**

eta hezkuntzak bat egiteko aukera eman dezakete aforismoek.

Arnaud Oihenart

(Maule, 1592 - Donapaleu, 1667) euskal poeta, legegizona, historialaria eta politikaria izan zen. Joan Perez de Lazarragarekin batera, ezagutzen den lehen euskal idazle laikoa. Euskaraz, frantsesez eta latinez idatzi zuen.

Aforismoa idazkera mota bat da non paradoxek, iruditegiek, herri jakintzak eta gogo ariketek aurrera egin dezaketen modu egokian. Paremiologian eta Errefrautan haien moduko



asko aurkitu arren, aforismoek berrikuntza dakarte berez, eta sortu berriak behar dute izan. Oso genero literario egokia da saiakerak idazten hasteko, gogamenari berea ematen baitio, idazkerari behar bezalako trataera duina aitortzen diola.

Hasier Agirre Aranburu

👉 Zer arraio hausnar daiteke urdail hutsarekin?

👉 Nola interpretatu gure unibertso bakar hau? Askotariko bertsoekin, zalantzarik gabe.

👉 Bukatu da gerra baina ezin esan bake ederra eman duenik.

👉 Torturatzaillearen alderik ilunena ez da sadikoarena, enpleguarena baizik.

👉 Haizea. Ezer ez da berea baina ia guztia eraman dezake.

👉 Noiz lizentziatuko gara euskal patologian?

👉 Pauso luzeko hankamotza da aforismoa.

👉 Buru jantzienak ere ezin denon gustuko janzkerarik eskaini.

👉 *Homo Ezjakiens*-ak soilik jo dezake *Sapiens* bere burua.

👉 Esaldi ahulak behar izaten du harridura-marka.

👉 **Jainkoa.** Subjektu eliptiko nekez antzemangarria.

👉 Borreroa damutu daiteke. Biktimak, ordea, ezin dio barkatu.

👉 Zirimiriaren nortasuna. Ez da ezkontzen ez Eguzkiaren nagusitzarekin, ez Ekaitzaren asaldurarekin.

👉 Herria argaltzeko bada, Erregimen gutxi egin dute huts.

👉 Gauzen sakonera jo eta, han ere, gehiena azalekoa dela konturatu.

👉 **ETA:** gehiegi luzatutako laburdura bat.

👉 Diktadorea ohean hil da. Onar dezagun herritar gehienak siestan zeudela.

👉 Zuhaitz zaharrak ez du zainak erakusteko lotsarik.

👉 Umorea, beti argal. Euskal Herrian, gainera, *h*-a kendu diogu.

Bixente Serrano Izko

🐞 Etorkizuna
iragankizun nahi du
baikorrak.

🐞 Baita ezgauza
sentitzeko ere bazen
ezgauza.

🐞 Guztiz arrotz zitzaion
lotsa, eta auzo-lotsa
ereiten zuen inguruan.

🐞 Ideia ustela, zurea?
Utzi bere horretan gorotz
bihurtzeraino: simaur
hobeagorik?

🐞 Harrigarriro,
harrizkoak ez garelako
uzten gaituzte batzuetan
harri eta lur.

🐞 Behiala malenkonia
zena, depresiotzat jotzen
dugu egun: balio estetiko
zena, sendatu beharreko
eri dugu gaur.

🐞 Gaurko
sozialdemokraziak
antisozial, bistan dena.
Bada, demokratikoak ote?

🐞 Zenbat eta
laburragoak Lur-globoko
distantziak, hainbat eta
luzeagoak lurтарren
artekoak.

🐞 Zenbat eta zentro
gehiago, hainbat eta
periferia gutxiago.

🐞 Nazioa edonora
eraman dezakegu
geurekin, eta edonon hari
utzi. Aberria, aldiz, bere
lekuan utzi behar bertze
inora ateratzean.

🐞 Jentilizio guztiak ez
dira berdin: Erromak egin
zituen erromatarrek;
nafarrek egin zuten
Nafarroa (baita desegin
ere).

🐞 Plutokraziotan,
herri-botere banaketa
baino, zatiketa hobe.
Dekonstrukzio
demokratikoa, antza
denez.

🐞 Torturatuarena ez,
bere egia nahi du
torturatzailleak.

🐞 **Balio** absolutuen
alde on bakarra, euren
aldakortasuna. Kostata,
bai horixe, eta garestia,
haiek pairatu behar
ditugunontzat.

🐞 Bidai gehiago egin
izan balitu, ez zukeen
hainbat **Mediterraneo**
aurkitu.

🐞 Pentsamolde
guztiak apurtu eta inork
ezin haren ideiarik batere
bildu.

🐞 Hau nekea!
Kontzeptu berriak,
ondare komun berri
izanen badira, mintzo
zaharrekin ulertarazi
behar!

🐞 Hitz eta pitz, sasi-
jakintza dizdiz.

Juan Ramon Alberdi

👉 Egunerokotasunaren ezbaia, ametsen guda zelaia.

👉 Zuhaitzen hilotzekin, euren borreroentzako hilkutxak egiten dira.

👉 Ondorengoei, etorkizuna ordeaz, etorkintasuna utzi diegu.

👉 Globalizazioaren ondorioak: errementariaren etxean, **Txinan** egindako buruntzalia.

👉 Borrokaren ostean denak dira minbera, baina, irabazlearena eta galtzailearena ez ei da minbera.

👉 Kea soilik saltzen dutenek sua eurentzat gordetzen dute eta,

batzuetan, **erre** ere egiten dira.

👉 Harroputza, itzal hutsa.

👉 Gaueko hitzak eta ihintzak egunak ez ditu hartzen aintzat.

👉 Autokritikak, kritika guztiak bezala, eraikitzailea behar du izan eta ez suntsitzailea.

👉 Askatasun haizeak arraina ito zuen.

👉 Urte luzeetan haur nadin, ez kezka eta ez adin, soilik bizigura eta jakin-min.

👉 Biluztean, lotsaz janzen gara.

👉 Denok dugu alderdi iluna eta ezkututzen

dugun heinean, are eta ilunago bilakatzen da.

👉 Ikasitako guztia maisu bati zor diogunean, **irakatsi gabekoa** berak zor digu guri.

👉 Eskalearentzat, bost izarreko hotela gau lainotsua da.

👉 Badira egun batzuek, zeintzuetan ezer gutxi egiten dugun, soilik orduei igarotzen utzi; horrela, poliki-poliki, denbora gutaz jabetzen da, zama arintzen digu, ahanzturan kulunkatu....; eta guk, geure bizitzaren zati txiki batekin ordaintzen diogu.

👉 Sarritan, begien egia mingainez estalia.

Agustin Arrieta Urtizberea

👉 Egia, ongia eta edertasuna. Banan-banan desiragarriak dirudite, baina gehienetan ez datoz banan-banan eta gehienetan ezin da horietako bat aukeratu besteen gainbeherarik gabe. Hain da zaila oreka, eta hain da ederra.

👉 Zer esan nahi dugu hilkorrok “inoiz ez” edo “beti” esaten dugunean?

👉 Zenbat denbora igarotzen da, zenbat minutu, zenbat segundo, garrantzitsua naizela pentsatzen dudanetik ezer ez naizela pentsatzen dudan arte? Nola da posible hain segundo gutxitan hainbeste amiltzea, edo hainbeste goratzea? Non dago **zentzua**?

👉 Bizitzaren gorabeherak eragiten du gudan haren gaineko kontakizuna, narrazioa, historia. Eta kontakizuna gorabeherari atxikitzen zaio, ezin aldendu harengandik, hari oratzen zaio. Harekin txirikordatzen da.

👉 Baina fikzioa fikzioa da, eta istorioa ez da historia.

Istorioak historia ordezkutzen duenean, akabo, *1984*.

👉 Zein garrantzitsua den **distantzia!** Ze min ematen (edo ze traba egiten) digun aldameneko umearen negar zintzoak! Ze hotz geratzen garen milaka umeren negar urrunaren aurrean!

👉 E-maila ez erabiltzea erabaki zuen: zehatzago, e-mailak ez erantzutea erabaki zuen. Ordu gehiegi pasatzen zituen e-mailak erantzuten, e-mailak irakurtzen. Moztu beharra dago! Hala, tarteka, oso tarteka bakarrik begiratzen zuen bere postontzi elektronikoa, eta gero eta mezu gutxiago jasotzen zituen. Azkenean “spam” batzuk baino ez. Tristurak jo zuen. Normaltasunera itzultzea erabaki zuen.

👉 **Hartu-emanak** berdintzen gaitu

👉 Muga, harresia, txarrantxazko hesia zegoen bi herriren artean. Biek, alde batekoak eta bestekoak, ikusten zuten Eguzkiaren ibilbide oso bera, baita zeru

eta mendi berak ere. Biak bustitzen zituen euri berak. Biek arnasten zuten haize bera. Zergatik dira hain desberdinak?

👉 **Polisak** egiten eta berdintzen gaitu, Eguzkiak, zeruak, mendiak baino gehiago.

👉 **Fikzio** mota asko dago. Amonak bilobari kontatzen dion bat-bateko istorioa ere fikzioa da. Fikzioa da Ama Birjina, fikzioa da Hiru den Bata, fikzioa da hormak zeharkatzen dituen mamua. Literatura ere hor nonbait dabil, baina fikzioa orokorragoa da, literatura eta gauza gehiago (erlijioa, kasu) barnebiltzen baititu.

👉 Ezagutu ditudan pertsonarik justuenek ze gutxi hitz egiten duten justiziaz!

👉 “Iruditzen zait ez naizela bizitzen ari”. Hori esan zidanean, haren egoeraz jabetu nintzen, eta haren edertasuna txori baten antzera hegan joan zen.

Oihane Garmendia Glaria

👉 Zein erreza den **iruditan** aforismoak sortzea. Ente independenteak bailiran mugitzen dira aforismoak, eta ene adimenak argazki bat ateratzen die, euren jabe eginez. Zailena ordea, argazki hori errebelatzea da, **paperera** ekartzea.

👉 Nora doaz ihesaren ihesi doazenak?

👉 Hitz aldrebestu gehiegi munduan. Agian ispilu aurrean kokatzen baditugu ulertuko dugu euren esanahia. Edo agian ez, agian hitzok ispiluari gehiegi so egiteagatik aldrebestu zaizkigu. Agian zilborrari gehiegi erreparatzeagatik ahantzi

gara **ipurdia** ere badugula.

👉 Zein da jatearen eta elikatzearen arteko aldea? Zein da uste izatearen eta jakitearen arteko aldea?

👉 Maite ditut maite gure **zaborrak**...

👉 Ideiak eta hodeiak, biek sortzen dituzte ekaitzak. Hasi bada, ideiak kondentsatzen, **lurra** idor da eta.

👉 Ideia pensamendu **hariketa** bat da. Aforismoa pensamendu **ariketa** bat da.

👉 Ideiak jostorrazaren antza du; pensamendu segida baten punta da,

eta ziztatzeko ahalmena du.

👉 **Idazkera**, ibilera bezala, gorputzak arnasteko duen bertze bide bat da. Buruak ideia gehiegi sortzen ditu; idazkerak pensamendu aukeraketa egiten laguntzen digu, ito ez gaitezen.

👉 Borobilari ertzak bilatuz ikasten dut mundu honek ez duela erakutsi zidatenaren antzarik.

👉 Norabiderik gabe ei gabiltza. Ez al da **norabideak** norantzaz aldatu dituztela?

Edu Zelaieta Anta

🐛 Kasurik onenean, bide luzea aurretik eta osasuna lagun ibilian, bizi guztia dugu heriotza onartzeko. Geurea nahiz besteena.

🐛 **Zahartzea** da ez bairik gabe gerta dakigukeen gauzarik hoberena. Aitzitik, inork ez du zahartu nahi.

🐛 Ura izena merezi du Lurrak: urak egiten gaitu planeta (eta ez lurrak); urak ematen digu bizia (eta ez jainkoak); ura da habitatzen gaituen gorputza (eta ez odola). Gero eta zalantza gutxiago dut: **ura** izena merezi du Lurrak.

🐛 Jostatzeko asmatu zen jostailua. Jostatzeko gailua. Denboraren

joanean, ordea, gailuak gaina hartu dio jostetari: jostailua dugu bitarteko eta helburu, egun.

🐛 **Informazioa** formazioaren oinarrizko lehen urratsa besterik ez da.

🐛 **Informazioa** demokratizatua omen den honetan, jakintsuak garelako uste ustelean gaude. Barre-argaren oihartzuna entzun uste dut, XXIII. mendetik.

🐛 Zenbat eta **estatus** handiagoa izan tarteko, orduan eta irri gutxiago sumatzen dira inguruan.

🐛 Zinikoek ez dute aforismo bat bera ere merezi. XXI. mendeko **zinikoek**, alegia.

🐛 Ezagutzaren lagun ezinbestekoena ez da bikaintasuna, ez eta unibertsitea ere, **pentsamendua** baizik.

🐛 **Pentsatzeak denbora** eskatzen du. Horregatik egiten dugu gero eta gutxiago.

🐛 Maiz irakasleak eskatzen du berak ematerik ez duena. Berak ematerik ez duelako.

🐛 Sarritan, norberaren kontzientziak baino gehiago bestearen ahalak ezartzen du **begirunea**.

🐛 Bestela begiratzen duenak bestela ikusten du.

Miren Usandizaga Manterola

👉 Ni naiz izan ziren haienen aztarna.

👉 Bezperako prentsa irakurtzen duena, beti lasai dago.

👉 Antifazarekin egiten du lo, eguneko **amets-gaiztoak** uxatzeko.

👉 Gezurraz mozorrotu zen eta inork ez zion sinetsi.

👉 Utzitako bidea ez da inoiz alferrik egin. Hari esker goaz aurrera.

👉 Usaimena da oroitzapenaren elikagaia.

👉 **Izana** galdu zuen eta inork ez du gogoratzen bere izena.

👉 **Izena** saldu zion izanari. Gaur inork ez du ezagutzen.

👉 Salatzen gaituen lehena: oinetakoa.

👉 Begiak itxi ditut, eta geldi-geldi geratu naiz kaleko bazter batean. **Auzoko bizitzaren tamaina** entzun dut. Antzinako baratz landuen isiltasuna aspaldi jan zuen egungo bizitzak.

👉 “**Itsasoa** ez dun gaiztoa; ez horixe. Inoiz putzutara eroriz gero, ez jarri urduri, utzi gorputza

eramaten, korronteak hartuko hau, eta hondartzara eraman... Baina laga hadi. Kontra joanez gero, ito!”

👉 Baten **betea** eta bestearen **hutsa** ezin dira konpreni, bata bestearen ondoan ez bada...

👉 Ai, mitxoleta gorri-gorriak! Inoiz ezin dira hartu, moztu ahala zimel-zimel egiten dira, eta ez du denborarik ematen uretan jartzeko...

Iñigo Legorburu Arregi

👉 Izan nuen aita hartan bihurtzen ari naiz.

👉 Zu baketzen asmatzea dut eguneroko borroka.

👉 Galdera bakar batentzat dagoen erantzun aniztasunak beldurtzen nau... agian, erantzun osorik ez dagoelako.

👉 Geroa eguneratzeari deitzen zaio **etorkizuna**.

👉 Ezetz esaten jakitea norberak bere burua baieztatzeko modu bat da.

👉 Une larrietan, arratsalde batek bizi oso bat iraun dezake.

👉 Ur haunditan ez itozteko, lehenik gauza txikietan bustitzen ikastea komenigarria da.

👉 XXI.mendeko Edipo eta Elektra guztiok konplexuz beteak gaude.

👉 Bihotzarekin pentsatzea da gurasoon logika.

👉 **Guraso** izatea, uneoro askatasun baldintzatu batean bizi da.

👉 Guraso izatea ez da doan ateratzen, bizi mailegutan ematen baita.

👉 Arduraren pisua, zama bilakatzen da sarri.

👉 Buru karratuetan, nekez kabitzen da erantzun borobilik.

👉 Guraso titulazioa biziak ematen du.

👉 Graduondokoa, berriro haur izaten ikastea emango digute.

👉 Moderno ustekook, tradizionalki kontserbadore jokatu izan dugu.

👉 Familia baten oreka ezegonkorra da.

👉 Esan gura den hura, beti ez da esanguratsua.

👉 Familia barruko konstelazioetan, bakoitza bere galaxian bizi da.

👉 **Hazkunde** pertsonala kolektibitatean oinarritzen da.

👉 Hezkuntzak hazkuntza baldintzatzen du.

👉 Bikote baten ardatza, mugak finkatzean datza.

Marijoxe Azurtza Sorrondagi

👉 Eskubideak eta betebeharrak, zuzentasunaren bi aurpegiak.

👉 Dirua inon ez eta **gogo**a edonon.

👉 Ni zure zain, zu nire zain... biak soltero!

👉 Txokolatea haur baten eskuetan, artea bere aurpegian.

👉 Haur baten izozki kukurutxoak beti du heldu batenak baino zulo handiagoa.

👉 **Jolas** bila, haurra abila.

👉 Gozamenerako zure irakaslea, zure haurra.

👉 Ametsei egin muzin eta depresioan ibiliko zara fin.

👉 Aurretik susmatutako albiste txarrak erreakzio ozena; ezustean jasotakoak, isila.

👉 Etsaiaren hitz lasaia, uste gabeko zorion ekaia.

👉 Ehun hitz esan, lau hitz argitzeko.

👉 Zure garaipenak kontatu aho zabalari; zure porrotak kontatu isilari.

👉 Ezjakinaren iritzia, zuri ala beltz; jakinaren iritzia, **ortzadarra**.

👉 Dakienak argi eta labur, ez dakienak luze eta astun.

👉 Hobe dakienaren errieta, ez dakienaren lausengua baino.

👉 Gezurra aberatsak, eta “hi bai iaioa”; gezurra alprojak, eta espetxea.

👉 Tontorrera iritsi arte ezin esan alturari beldur diozun ala ez.

👉 “Ongietorri” dio itxaropenak zoritxarrari, “zugandik ikasiko dut”.

👉 Begirunea, elkarrekiko begi unea.

👉 Azken puntua irabazi gabe, teniseko partida gal daiteke.

👉 Bultzatuta ere, ez duzu mando bat mugitzerik lortuko hark nahi ez badu.

👉 Gelan eulia, bilera iraulia.

👉 Zure burua zainduko baduzu, isilik egoteko tarte bat har ezazu.

👉 Hasiera duenak, **amaiera** behar du.

2011n, EHUko Gipuzkoako Campusaren eta Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntzaz, Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak ekin zion “Oihenart” izeneko aforismoen lehiaketa antolatzeari. 2012. eta 2013. ediziotan aurkeztutako hainbat aforismo hautatu biltzen dira hemen.

Egileak: Marijoxe Azurtza Sorrondegi, Oihane Garmendia Gllaria, Miren Usandizaga Manterola, Iñigo Legorburu Arregi, Edu Zelaieta Anta, Agustin Arrieta Urtizberrea, Juan Ramon Alberdi, Bixente Serrano Izko eta Hasier Agirre Aranburu.

Epaimahaikideak: Cristina Lasa Otxoteko, Juan Kruz Igerabide Sarasola, Fito Rodriguez Bornaetxea eta Segundo Garin Casares.

Edizio eta koordinazioa: Antonio Casado da Rocha.



Donostiako Udala
Euskara Zerbitzua

